

## 2. Atala

### LEHENENGO GIZAKIAK

Beren herria ezagutzeko bidaia hasia zuten Jone eta Aritz iurretarrak, denboran zehar egin beharreko bidaia, eta Oiz barreneko mendietan paseoan zebiltzala Iurretako punturik altuenera iritsi ziren, Gallandako tontorrera!

- Zeinen bista ederrak dauden hemendik, ez da ala Aritz?
- Ikaragarriak bai! Zeintzuk dira mendi horiek?
- Jejeje! Nik izenak emango dizkizut baina ea zuk asmatzen duzun zein den zein.

Bazuen tarte baterako lana mutikoak eta Jone Ingurura begira jarri zen. "Nola bizi ote ziren hemen inguruko lehenengo gizakiak?" hasi zen pentsatzen.



Horretan zebiltzala emakume bat azaldu zitzaien zuhaixka batzuen atzetik.

- Hori ez da Anboto gazte, Anboto hango hura da! – Esan zion Aritzi irribarre batez eta Joneri pentsamendua igarri balio bezala jarraitu zuen – Gaur egun Iurreta bezala ezagutzen dugun tokian ez da historia aurreko aztarnarik aurkitu baina bai han, ekialderago, Oiz barrenean, Ipiñarrieta inguruan.

- Zer motatako aztarnak? – Galdetu zuen Jonek jakinminez.
- Neolito garaiko dolmen batzuk?
- Dolmenak? – Aritzek ez zuen ondo ulertzen zer ari zitzaizkion kontatzen.
- Bai Aritz – Erantzun zion Jonek – Hildakoak lurperatzeko eraikitzen zituzten.
- Hala da bai – jarraitu zuen emakumeak – Garai hartan tribu nomadak bizi ziren inguru hauetan. Artzainak ziren eta beren abereentzako larren bila ibiltzen ziren batetik bestera. Pentsatzekoa da beraz neguan, mendietatik beheko aldera jaitsiko zirela, baita Ibaizabal, Zaldai eta Mañaria erreken ingurura ere.

#### ARIKETA:

- Kokatuko mendi izen bakoitza bere tokian?
- Koloreztatu lehenengo gizaki haien dolmen edo trikuharria.



Leungane

Errialtabaso

Anboto

Saibi

Atxiki

Urkiolamendi

Mugarra

Udalaiz

Alluiz

Untzillatx